

Iazko martxoaren 3an, Udaletxe atarian, zenbait herritarrek agerraldi baten bidez, GHK eta Gipuzkoako Foru Aldundiko agintariek lotutako kontratuak Gipuzkoako hondakin guztiak 2051. arte kontratista pribatuen esku utziko zituela ohartaraztearekin batera, hitzarmen horren ondorioak PASAIAko Udala, eta ondorioz pasaitarrak, zertara lotuko zituen kezkatik abiatuta, Alkateari zuzendutako galdera eta eskaeraren berri eman genuen.

Zaborzaleen Klub pribilegiatuko kideen artean, herritarren osasunaren eta herritarren zergen kontura erregimenak asmatu duen negozio kutsakorrek dibidenduak banatu ditzan, Zubietako errauskailua bezalako azpiegitura kutsakor, garesti eta baliabide ekonomikoak xahutu eta hondakinak erretzeko proiektuak, Udala datozen 35 urteetarako zorpetuko zuela jakitun, herritarrok Udalaren aldetik inongo informaziorik, azalpenik eta honen inguruko iritzirik ez jaso izanak larriki larritzen gintuelako, Alkateari argibideak, ardura eta gardentasunez jokatzeko eskatzen genion.

Hala, agerraldiaren ostean, Izaskun Gomez alkateari zuzendutako 280 eskaera tramitatu genituen Udaletxeko sarreran. Egunak, asteak eta hilabeteak pasa eta alkatea mutu. 6 hilabete igaro ostean, 2017ko irailaren 26ko Udalbatzara azalpen eske joan ginen eta alkateak atzerapenagatik barkamena eskatu, erantzuteko konpromezua hartu eta haiek “bizpahiru astetan” izango genituela agindu zigun.

Bere hitza berriz ere jan eta lehen erantzunak azaroaren erdialdean irteten hasi ziren Udaletik. Lehen erantzunak diogu, herritar askok oraindik, 10 hilabeteren buruan erantzun baten esperoan jarraitzen dugulako.

280 herritarrok sartutako eskaera testua bera ere irakurri ote duen zalantza egiten dugu. Beharrezkoa ez zen “Udala-Mankomunitate-Partzuergo” harremana azaltzeko temak, bere posizioa zuzitzeko eta ardura bere gain ez hartzeko amarrutzat daukagu. Gure idatzian lotura hori argi aipatzen genuen “jakinik hondakinen kudeaketa Udal honi dagokion eskumena dela, Udal hau GHKren erabakietan partaide dela mankomunitate baten bidez, Udalak bere borondatez hartzen duela parte mankomunitatean eta honi borondatez dauzkala utziak aipatu hondakinen kudeaketaren eskumenak”.

Soberan dagoen sarrera horren ostean erregimenaren propaganda ofiziala: “aurreko gobernuaren kudeaketak eragindako galera ekonomikoak eta zulo ekonomikoa”ren ondorio omen da privatizazioa eta gipuzkoarrok “urtero 23,6 milioi euro 32 urtez” ordaindu behar izatea. Swapak 2011an nork sinatu zituen ahaztuta ala? Nor den zuloaren arduradun? Aurpegia behar da gero “horren bidez hondakinekin dugun arazoa behin betiko konpondu” egiten dela esateko. Duela 15 urteko kalaka eta gezur berdinekin jarraitzen duzue. Guk aldiz 15 urteotan plazaratutako egia honetatik tiraka lanean, “poltsa batean hondakin nahasi guztia zamatu eta erraustegi bat eraikitzeagatik, zaborraren arazoa amaituko den errezeta zaharrekin bukatu beharra dago”.

Gogoratzen duzue?

Duela hamarkada bat pasatxo gipuzkoarrak mehatxupean jarri gintuen proiektua sartu zuten agendan zenbait agintarik! Errauste planta eraikitzeko bultzada baina ez zen herritarrengandik etorri! Zenbait sektore ahaltsuen interes ekonomiko eta politikoen, erregimenaren, eskutik baizik. Gipuzkoan, hondakinak erraustearen mamua herri batetik bestera ibili zen, hango eta hemengo herritarrak izutuz. Batzuk, mamua bere herrira gerturatu bezala urruntzearekin lasaitu inozoa hartu zuten. Beste batzuk, Odon Elorza eta beste sozialista gipuzkoar batzuk esaterako, haien errausketaren kontrako diskurtsoa egun batetik bestera aldatu zuten; zerk edo nork eraginda Izaskun? Beste batzuk aldiz, haratago joan eta arazoa ERROTIK konpondu behar zela ikusi genuen, hondakinak ondo kudeatuz, murrizketan eta birziklapenean benetan eragiteko neurriak hartuta. Horrela, errauskailuaren bideragarritasuna hutsean geratuko zen, eta norabide horretan herritar askok lan horri heldu genion.

Aurreko hamarkadetan ez bezala, 2011.ean, Udaletan eta ondorioz Mankomunitate ezberdinetan zein Diputazioan sortutako indar korrelazio berriak, ordu arte ez bezala herri mugimenduetatik eta herrigintzatik urteetan mamitutako eskaeren eta aldarrikapen historikoen mesedetan, norabide berdinean lan egitea ahalbideratu zuen. Mediatikoki ezkututzen saiatu arren, teoria praktikara eramanez, Udal batzuek, tartean PASAIAkoa, hiri hondakinak kudeatzeko beste eredu jasangarriagoa, merkeagoa eta ingurugiroa eta osasuna errespetatzen dituen bazegoela erakutsi zuten.

Herritarron jokabide arduratsuak babestu eta bultzatzea politikaren eta politikoen oinarria beharko lukeenetik urruti, zuek, Udal gobernua osatzen duzuen PSOE eta PNV, errauste plantak eta atzean zeuden interesak zaindu eta babesteko PASAIAn eredugarria izan zen atez-ateko bilketa sistemaren aurkako gurutzada zikina abiatu zenuten, hondakinak erraustu nahi zituzten zuen nagusientzako, PASAIA eta oro har Gipuzkoako herri askotako praktika eredugarria herrialde osora zabalduta errauskailuaren proiektua betiko lurperatzea zekarrela jakitun. Herritarron bizkar eta herritarron interesen aurka inposatutako proiektua geratzea eta honen parean alternatiba gorpuztea larrutik ordaindu beharreko kontua zen, da. Bihoakie hemendik Ainhoa Intxaurrandieta eta Iñaki Errazkineri gure babes eta elkartasuna. Modu lotsagarrian eta arduragabeen zuen politika ustelaren ondorioak pairatu genituen zuen oposizio urteetan. Gezurretan oinarritutako kanpaina mediatikoaren txingor eta erasoak! Boterea eta agintea zure ezkerretara esertzen den akolito horren eta PNVren laguntzarekin modu zikin horretan lortu zenuen; betirako zikinduta Izaskun.

Jarraian alkateari plazaratutako galderen atalari helduko diogu:

Udal honek kontratua ekitaldi publikoan onartzeko erabakirik hartu ote zuen galdetzen genion. Jaso dugun erantzunaren arabera, “kontratuak Mankomunitateek Partzuergoan onartu zuten”.

Partzuergoaren proiektu izarra egikaritzeko, zaintzeko eta goratzeko herrietatik sortzen den hondakin nahasi oroz elikatu nahi dute erraustegia. Lantegi horretarako San Marko mankomunitatearen barruan, PASAIako Udalaren ordezkariak, Lore Suarez (PSOE) eta Miriam Cano (PNV) dauzkagu, GHKren tasen igoeraren eskandaluari oniritzia eman zioten berberak. Gogorutzen? Gure kasuan, PASAIA San Marko Mankomunitateko kide izanik, organikoaren tasa kolpetik %77 igotzea adostu zuten. Organikoaren tonagatik 70€ ordaintzetik 130€ ordaintzera igaro zen Udala. Organikoa zabor nahasietatik bereizita bildu eta konpostatzeko ahalegina zigortu egiten ditu Udal honek.

Kontratu horrek Udala eta herritarrentzat dituen ondorio larriak direla eta, Udaleko alderdi eta ordezkari politikoen iritziak ezagutu nahi genituen eta zein agiritan argitaratuta dauden jakin. Hori zen galdera. Erantzuna baina, alkateak edo erantzuna idatzi dionak ez dio galdetutakoari erantzun. Kontrara, “Udalak partzuergoaren erabakiak errespetatzen ditu” erantzutera mugatu da. Errespetatu ez, horren mesedetan lan zikina egiten ari zarete PASAIAN.

Jarraian, 2051.erarte lotuko dituen kontratuen ondorioez eta xehetasunez PASAIako herritarrak ohartarazi ote dituen galdetzen genion alkateari eta erantzuna ikaragarria da, hitzez hitz: “Hondakinak biltzeko eta tratatzeko eskumena mankomunitateei eskualdatua dago, zerbitzu hori ematea Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoari dagokio, eta bertan hartzen du parte San Marko Mankomunitateak. Azken batean, Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoak konpondu behar du hondakinen arazoa”.

Erantzun honekin PASAIako herritarrak informatzeko lana Partzuergoarena dela esan nahi duzu? ZURE herritarren aurrean aurpegia emateko ardura ere Partzuergoak dauka alkate? Hori azala!!

Honen aurrean aipatu behar da PASAIak ez diola mankomunitateari errefusa biltzeko eskumenik eman, hortaz, alkateak gezurra esaten du. Bi urtetik hona, bikoiztu den atala biltzen, badu lana! Berriki Pasai Antxon errefusa soilik bildu beharko lukeen edukiontzi gris batean egin genuen karakterizazio publikoak zuen politikaren porrota eta hipokrisia bistaratzeko balio izan zuen. Borondatezko 5.edukiontzia eta giltzaren alegiazko amodiozko ipuina ezerezean utziz. Elkar kortejatzeko baino, 2015eko urrian irrien artean Asensiok eta Izaskun Gomezek aurkezten zuten giltza errauskailuaren atea parez pare irekitzeko lanabesa duzue!!

Azkeneko galderan ere nondik zatoz, mendira noa: Udalak hondakinen kudeaketa berreskuratzeko aukera eta horren ondorio eta eraginak aztertu ote dituen galdetu eta zerikusirik ez duen propagandaren beste atal batekin bueltan: “Hondakinen Partzuergoak jakinarazi duen moduan, Ingurumen Zentroa

egikaritzeak onura ekonomikoak eta sozialak ekarriko ditu, eta baita ingurumen onurak ere, egungo egoerarekin alderatuz”.

Alkatearen ahotik, errauskailuaren proiektu bidegabe eta inposatuak zertara lotuko gaituen azaltzea nahi genuen. Horren trukean pilota beste batzuen patiora bota du. Hala, duela hamar hilabete genituen kezkek areagotuta daude une honetan. Alde batetik alkateak ziria sartu digu, 10 hilabeteren ostean ganorako erantzun bakar bat ere ez dugu jaso. Argi geratzen da emandako erantzunak ikusita ez dituela galderak irakurri, eta zalantzarria da erantzunak berak idatzi izana; herritarronganako begirune falta honi alkatearen utzikeria gehitzen badiogu, ez soilik galdera-erantzun hauen inguruan, baizik eta, aurreko legealdiko joko zikina eta gezurrak, eta bi urte luze hauetan azaldu duen hondakinen kudeaketa lotsagarrian (edozein leku seriotan bi urtetan birziklatze tasa 20 puntu jaitsi dituen kudeatzaileak kargutik kanpo egon beharko luke), bere eta bere gobernu talde osoaren dimisioa eskatu beharrean gaude.

Zor ez-legitimoaren kontra, zuen ardura eta erantzukizuna erregimeneko politikari, ozen salatzeaz gain, hondakinak hobeto, garbiago, osasuntsuago eta merkeago kudeatzeko alternatiba gizarteratuz borrokan jarraituko dugu, kutsaduraren aurka eta gure osasun eta ekonomiaren alde. Gaur egungo sistemak soilik lobbyen poltsikoei egiten die mesede. Apurtu dezagun horrekin.

Pasaiako Udalaren hondakinen kudeaketarekin kezkatuta gauden herritarrak.